GIZON DUZ

2025eko JARDUERA MEMORIA

BERDINTASUNAREN ALDE GIZONEKIN ETA MASKULINITATEEKIN LAN EGITEKO EAEKO ZERBITZUA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GizonduZ

1. SARRERA 05

2. 2025EAN EGINDAKO JARDUKETAK 06

2.1. WEB GUNEA 06

2.1.1. Sare sozialak 07

2.2. PRESTAKUNTZA- ETA SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMA 08

2.2.1. AURREZ AURREKO IKASTAROAK 10

2.2.2. *online* IKASTAROAK 20

2.2.2.1. *online* sentsibilizazioa, 10 ordu 20

2.2.2.2. *online* prestakuntza, 15 ordu 21

2.2.2.3. *online* prestakuntza, 25 ordu 21

2.2.2.4. *online* prestakuntza, 30 ordu 24

2.2.2.5. Neurrira egindako *online* prestakuntza 25

2.3. "GAZTEAK BERDINTASUNEAN" PROIEKTUA 26

2.3.1. Ikastetxeentzako prestakuntza-programa 26

Irakasleekin prestakuntza 26

Ikasleekin prestakuntza 28

2.3.2. Familia-laguntzarik gabeko adingabe eta gazteentzako eta adingabeak hartu eta babesteko zentroentzako prestakuntza-programa 30

2.4. "GIZON POLITIKARIAK BERDINTASUNAREN ALDE" PROIEKTUA 34

2.5. "GIZON ADINTSUAK BERDINTASUNAREN ALDE" PROIEKTUA 35

2.6. AHOLKULARITZA ETA LANKIDETZAK 36


2.6.1. Hutchinson-Intecsa 37
2.6.2. Enkarterriko Mankomunitatea 38
2.6.3. Aretxabaletako Udala 38
2.6.4. Idiazabalgo Udala 39
2.6.5. Aloña Mendi Kirol Elkartea 39
2.6.6. "Dare to Care" Programa 40
2.6.7. BRÓDERS proiektuak 41


2.7. "GIZONOK ESAN ETA EGIN" KANPAINA 42

2.8. JARDUNALDIETAN ETA KONGRESUETAN PARTE HARTZEA 43

3. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA 45

ERAKUNDE PARTE-HARTZAILEAK 49





1.0 Sarrera

Gizonduz 2007an sortu zen proiektu pilotu bezala; gaur egun, gizonekin eta maskulinitateekin berdintasunaren alde lan egiteko euskal zerbitzua da, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak kudeatzen du.

Gizonduz programaren **helburu nagusia** da alde batetik, sustatzea gizonek izan dezatela emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko kontzientzia, erantzukizuna eta inplikazioa, eta, beste alde batetik, tratu onak bultzatzea, maskulinitate askotarikoak eta berdinzaleak sustatuz.

Helburu espezifikoak honako hauek dira:


- Handitzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka sentsibilizatutako, prestatutako eta konprometitutako gizonen kopurua, bereziki gazteen, sozialki kalteberak diren sektoreen artean eta eragiteko gaitasuna duten liderren eta erreferenteen artean.
- Handitzea gizonek etxeko lanetan eta zaintza-lanetan duten erantzukidetasuna, eta, haien artean, zaintzaren etika eta praktika orokortzea , lan horren banaketa orekatua lortzeko, norberaren eta besteen garapen eta ongizaterako, eta genero-desberdinkeriak, indarkeria matxista eta pertsonentzat eta ingurunearentzat kaltegarriak diren arrisku-jokabideak murrizteko.
- Psikohezkuntzako aholkularitza eta laguntza emateko zerbitzuak eta tresnak bermatzea, berdintasuna eta tratu onak sustatzeko eta jokabide matxista problematikoak prebenitzeko.
- Gizonen, maskulinitateen eta berdintasunaren arloko jarduerak egiten dituzten antolakunde publiko eta pribatuen kopurua handitzea.

Gizonduzek aurreko urteetan garatutako jarduerak jasota daude 2007az geroztik gaur egunera arte egindako memorietan, eta esteka honetan daude: memorietarako esteka.


2.0 2025ean egindako jarduketak

2.1. WEB GUNEA

2025ean, Gizonduzi buruzko atala administratzen jarraitu da Emakunderen webgunean. Atal hori berritu egin da eta edukiak beste era batera antolatu dira. Ekimenari buruzko informazio ugari du euskarri bat baino gehiagotan eta zenbait atal ere bai: prestakuntza, elkarrizketak, kanpainak, gizon taldeak, materialak, Gazteak Berdintasunean, jardunaldiak, aholkularitza, Baliabideak Euskadin, 2030 estrategia, etab.



Garrantzitsua da nabarmentzea atal berri bat sartu dela: “Baliabideak Euskadin”. Atal horretan, EAEn dauden baliabide batzuen berri ematen da, gizonen eta maskulinitateen lanera bideratuak, eta barnean hartzen ditu programa egonkorrak, elkarteak, prestakuntzak eta indarkeria matxistari lotutako prebentzio-zerbitzuak. Hainbat material ere jasotzen ditu; esaterako, gidak, azterlanak eta txostenak. Horrez gain, beste atal bat sortu da, “Zure baliabideak gehitu edo eguneratu” izenekoa, elkarteek, erakundeek eta taldeek aukera izan dezaten beren baliabideak eta materialak txertatzeko. Horren bidez, gune elkarreragile bat sortu nahi da informazioa eguneratuta mantentzeko eta EAEn sortutako ekimen eta materialak errazago hedatu eta sozializatzeko.



2025ean, Gizonduzen web-orriak 5.622 bisita izan ditu guztira; 4.322 gaztelaniaz, 1.134 euskaraz eta 166 ingelesez.

2.1.1. SARE SOZIALAK

Gizonduz Facebooken dago 2009az geroztik. 2025ean, 5.155 jarraitzaile izan zituen; batez beste, 14.812 ikustaldi izan zituen, eta 5.864 pertsonarengana iritsi zen: % 42,2 emakumeak, eta % 57,8 gizonak. 2025ean, 118 argitalpen egin ziren.

Gizonduz Instagramen ere badago 2022az geroztik. 509 jarraitzaile ditu eta, batez beste, 6.908 ikustaldi izan ditu 2025ean. 2025ean, 54 argitalpen egin ziren.

Gizonduz Xn (lehen, Twitter) ere badago. 2.083 jarraitzaile ditu, eta, 2011z geroztik, 7.359 txio idatzi dira guztira; haietatik, 67 txio 2025ean.

Halaber, Gizonduzek kontu bat du YouTuben: bertan, berdintasunari eta maskulinitateei buruzko kongresuen, hitzaldien, tailerren eta iragarkien bideoak eta ikus-entzunezko materialak ikus daitezke. Gizonduzen YouTubeko orrialdean, 82 bideo daude, eta, 2025ean, 1.196 aldiz ikusi dira bideo horiek; kontua sortu zenez geroztik (2009an), 31.224 aldiz ikusi dira bideoak.

2.2. PRESTAKUNTZA- ETA SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMA

2025. urtean, 245 ikastaro egin dira guztira, eta 4.844 pertsonak hartu dute parte haietan: haietatik, 2.921 gizonak ziren (% 60,30), 1.862 emakumeak (% 38,44), 18 ez-binarioak (% 0,37), eta 43k (% 0,89) ez zioten erantzun galdera horri. Zenbaketa honetan sartu dira aurrez aurreko ikastaroak eta online egindakoak, baita "Gazteak Berdintasunean" eta "Gizon politikariak berdintasunaren alde" proiektuen esparruan egindakoak.

Ikastaroen tipologiaren arabera, honela banatu dira parte-hartzaileak:

2025	Emakumeak	Gizonak	Ez-binarioak[1]	Ez du erantzun	GUZTIRA
AURREZ AURREKO IKASTAROAK	671	1.373	1	0	2.045
GAZTEAK BERDINTASUNEAN	682	951	16	41	1.690
GIZON POLITIKARIAK BERDINTASUNAREN ALDE PROIEKTUA	0	96	0	0	96
ONLINE IKASTAROA, 60 ORDUKOA	0	0	0	0	0
ONLINE IKASTAROA, 10 ORDUKOA	119	102	1	2	224
NEURRIRA EGINDAKO ONLINE IKASTAROA	223	268	0	0	491
ONLINE IKASTAROA, 15 ORDUKOA	25	10	0	0	35
ONLINE IKASTAROA, 25 ORDUKOA	123	109	0	0	232
ONLINE IKASTAROA, 30 ORDUKOA	19	12	0	0	31
GUZTIRA	**1.862**	**2.921**	**18**	**43**	**4.844**

2009ko martxoan jarri zen abian Gizonduzen sentsibilizazio- eta prestakuntza-programaren lehen edizioa, eta, 2025eko abendura arte, 41.904 pertsonak parte hartu dute ikastaroetan. Ikastaro motaren arabera, honela banatzen dira pertsona horiek:

[1] 2018tik, bi neurketa-kategoria berri txertatzen dira, oinarritzat hartuta parte-hartzaileen sexu- edo genero-identitatearen autoidentifikazioa: Ez-binarioak eta Ez du erantzun



- Gizonduzen aurrez aurreko ikastaroak
- Gazteak Berdintasunean
- Gizonak eremu politikoan
- 60 Orduko online ikastaroa
- 10 Orduko online ikastaroa
- Neurrira egindako online ikastaroa
- 25 Orduko online ikastaroa
- 30 Orduko online ikastaroa

Ikastaro mota	Emakumeak	Gizonak	Ez-binarioak	Ez du erantzun	GUZTIRA
AURREZ AURREKO IKASTAROAK	8.451	14.259	102	123	22.935
ONLINE IKASTAROA, 60 ORDUKOA	602	393			995
ONLINE IKASTAROA, 60 ORDUKOA	1.287	973	1	2	2.263
NEURRIRA EGINDAKO ONLINE IKASTAROA	1.257	2.117	24	33	3.431
ONLINE IKASTAROA, 15 ORDUKOA	25	10	0	0	35
ONLINE IKASTAROA, 60 ORDUKOA	1.918	945	2		2.865
30 ORDUKO ONLINE IKASTAROA	68	25	2		95
35 ORDUKO ONLINE IKASTAROA	8	5		1	14
GAZTEAK BERDINTASUNEAN[2]	3.121	5.523	74	86	8.804
GIZON POLITIKARIAK BERDINTASUNAREN ALDE PROIEKTUA[3]		467			467
GUZTIRA	**16.737**	**24.717**	**205**	**245**	**41.904**

[2] Atal honetan, ikastetxeentzako proiektuetan (ikasleak eta irakasleak) eta zenbatu da zenbat pertsonak parte hartu duten adingabeak hartzeko eta babesteko EAEko zentroentzako proiektuan , 2022an egindako gazte atzerritarrentzako proiektuko parte-hartzaileak barne.


[3] Parte-hartzaileak 2017az geroztik zenbatzen dira.

2.2.1. AURREZ AURREKO IKASTAROAK

2025. urtean, aurrez aurreko 128 ikastaro egin dira; haietatik, 13 *webinar* formatuan, ikasleen *online* presentziarekin. Aurrez aurreko ikastaroen atal honetan sartu ditugu, bai emandako orduak, bai parte hartu duten ikasleak; izan ere, *online* ikastaroetan ez bezala, ikasleek zuzenean parte hartu dute etxetik edo enpresatik, eta aukera izan dute ikastaroaren garapenean parte hartzeko. 2.045 parte-hartzaile izan dira guztira: 1.373 gizon, 671 emakume, eta bat ez-binario gisa identifikatu da. Nabarmendu beharra dago ezen, programa hasi zenetik, Gizonduzen aurrez aurreko ikastaroetan parte hartzen duen pertsona eta gizon kopururik handiena dela.

2009tik 2025era (biak barne), aurrez aurreko 1.271 ikastaro egin dira (2025ean, 128). Guztira, 22.935 pertsonak[4] parte hartu dute; harietatik, 14.259 gizonak ziren (% 62,17), 8.451 emakumeak (% 36,85), 102 ez-binario gisa identifikatutako pertsonak (% 0,44), eta 123 pertsonak ez zioten galdera horri erantzun (% 0,54).

Aurrez aurreko ikastaroetan izandako parte-hartzearen bilakaera[5]




[4] Datu horietan, ez dago barne hartuta zenbat ziren «Gazteak Berdintasunean» programako ikasleak, zeina aurrerago baitago zehaztuta.

[5] 2018tik, bi neurketa-kategoria berri txertatzen dira, oinarritzat hartuta parte-hartzaileen sexu- edo genero-identitatearen autoidentifikazioa: Ez-binarioak eta Ez du erantzun.

Ikastaro horietako ikasleak, sexuaren-generoaren arabera bereizita, era honetan daude banatuta

URTEA	Emakumeak	Gizonak	Ez-binarioak	Ez du erantzun	GUZTIRA
2009	241	512	-	-	753
2010	900	895	-	-	1.795
2011	638	821	-	-	1.459
2012	677	768	-	-	1.445
2013	389	628	-	-	1.017
2014	375	662	-	-	1.037
2015	354	467	-	-	821
2016	382	630	-	-	1.012
2017	362	464	-	-	826
2018	263	617	29	41	950
2019	462	1.205	32	34	1.733
2020	292	637	6	7	942
2021	579	1.000	22	11	1.612
2022	579	1.324	3	16	1.922
2023	546	1.092	0	3	1.641
2024	741	1.164	9	11	1.925
2025	**671**	**1.373**	**1**	**0**	**2.045**
GUZTIRA	**7.780**	**12.886**	**101**	**123**	**20.890**

Ikasleek iraupen-tipologia desberdinetako ikastaroetan parte hartu dute 2009tik 2025era, biak barne. Tipologia horiek honela banatzen dira




2009tik 2025era bitartean, ikasleen % 27,9k parte hartu du 3 ordura arteko aurrez aurreko ikastaroetan; ikasleen % 49,8k, 4 eta 9 ordu bitarteko ikastaroetan; eta, azkenik, ikasleen % 22,3k, 10 ordutik gorakoetan. 2025ari dagokionez, ikasleen % 46,6k parte hartu du 3 ordura arteko aurrez aurreko ikastaroetan. Bestalde, ikasleen % 35,1k parte hartu du 4 eta 9 ordu bitarteko ikastaroetan. Azkenik, ikasleen % 18,3k parte hartu du 10 orduko edo gehiagoko ikastaroetan .

2024an bezala, nabarmentzekoa da 2025ean ere mantendu dela 10 orduko aurrez aurreko prestakuntza Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren mendeko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin elkarlanean egindako *online* eta aurrez aurreko ikastaroetan. Prestakuntza hori mistoa izan da: 10 ordu *online* , Moodle plataforman, eta beste 10 ordu, aurrez aurre. Era horretan, parte hartu egin da aurreko urtean guztira izan zen guztizko dedikazioa. Ikastaroak eman zaizkie XXXII. promozioko 22 talderi; guztira, pertsonako, 227 ordu izan dira aurrez aurreko prestakuntzakoak eta 10 ordu *online* prestakuntzakoak.

IKASTAROAK 2025	Ordu kopurua	Ordu guztien ehunekoa	Ikasleak, guztira	Ikasle guztien ehunekoa	Gizonak	Ema-kumeak	Ez du erantzun	Ez-binarioak
58 ikastaro 3 ordura arte	135,5	% 22,33	953	% 46,6	656	297	0	0
45 ikastaro 4 eta 9 ordu bitarte	214,5	% 35,33	718	% 35,1	470	247	0	1
25 ikastaro 10 orduko edo gehiagokoak	257	% 42,34	374	% 18,3	247	127	0	0
GUZTIRA: 128 ikastaro	**607**	**% 100**	**2.045**	**% 100**	**1.373**	**671**	**0**	**1**

Aurrez aurreko ikastaroetako parte-hartzea 2025ean



2025ean, honako hau izan zen aurrez aurreko ikastaroen banaketa, entitate eskatzaileen arabera:

Enpresekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroak

Entitatea	Edukiak	Norentzat diren	Ikastaroen kopurua	Ikastaro bakoitzaren iraupena ordutan	Orduak, guztira
TH COMPANY	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan	Lantaldea	3	4	12
ORBINOX	Maskulinitateak, berdintasuna eta erantzukidetasuna	Lantaldea	3	4	12
SORALUCE COOP.	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan eremuan	Lantaldea	1	3	3
ORMAZABAL	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan	Berdintasun Batzordea	3	4 orduko 1 ikastaro, 3 orduko 2 ikastaro	10
INETUM	Gizonak, maskulinitateak, berdintasuna eta sexu-jazarpenaren zein sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzioa	Lantaldea	5	4	20
ARTIACH	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan	Berdintasun Batzordea eta zuzendaritza	1	4	4
RPK	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan	Lantaldea	2	2	4
TEKNIA	Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa	Lantaldea	5	1	5
BPG	Maskulinitateak, berdintasuna eta lan-arriskuak	Lantaldea	4	1	4
ULMA	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan eremuan	Zuzendaritza	1	4	4
FAGOR	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan eremuan	Lantaldea	1	4	4
IKERLAN	Maskulinitateak eta berdintasuna	Lantaldea	1	1,5	1,5
IKERTALDE	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan	Lantaldea	1	4	4
ITSASMUSEUM	Gizonak, maskulinitateak eta sexu-jazarpenaren zein sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzioa	Lantaldea	1	4	4
GRUPO AVANZA TRANSPORTE	Gizonak, berdintasuna, homofobia, lan-arriskuen prebentzioa, bide-heziketa eta istripuen prebentzioa	Lantaldea	6	7	42
HUTCHINSON-INTECSA	Gizonak, maskulinitateak, erantzukidetasuna eta zainketak	Lantaldea	5	2,5	12,5
DANOBAT	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan	Lantaldea	1	3	3

Erakunde eta enpresa publikoekin elkarlanean egindako aurrez aurreko ikastaroak

Entitatea	Edukiak	Norentzat diren	Ikastaroen kopurua	Ikastaro bakoitzaren iraupena ordutan	Orduak, guztira
METROBILBAO	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna lan-munduan	Lantaldea	22	2,5	55
POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA	Maskulinitateak, arriskuak eta berdintasuna	XXXIII. promozioko ikasleak	24[6]	10	247
ETXEBARRIKO UDALA Gizon taldea	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna	Udalerriko gizonak	6	2	12
ZALLAKO EGUZKI EGOITZA	Gizonak, maskulinitateak, zainketak eta erantzukidetasuna	Lantaldea	2	4	8
ARABAKO FORU ALDUNDIA	Gizonak, maskulinitateak, zainketak eta erantzukidetasuna	Gizon politikariak	2	1,5	3
ELORRIOKO UDALA	Maskulinitateak, berdintasuna eta balio aldaketa	Lantaldea	2	5	10
DONOSTIAKO UDALA (MUGIKORTASUNA)	Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa; indarkeria matxistak eta arriskuen prebentzioa	Lantaldea	2	10	20
EEE Energiaren Euskal Erakundea	Gizonak, maskulinitateak, zainketak eta erantzukidetasuna	Lantaldea	4	4	16
OSAKIDETZA	Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa; erantzukidetasuna eta zainketak; indarkeria matxistak eta sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena	Bertako langileak	7	3 orduko 6 ikastaro eta 6 orduko ikastaro bat	24
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Maskulinitateak, berdintasuna eta tratu onak esku-hartze sozialean	Lankidetzan diharduten erakundeetako langileak	2	8	16
URA Uraren Euskal Agentzia	Berdintasuna, maskulinitateak eta lan-arriskuen prebentzioa	Lantaldea	1	4	4
EUSKOTREN	Gizonak, maskulinitateak, berdintasuna eta lan-mundua	Lantaldea	4	5	20

[6] 24 talde zenbatu dira, Akademiako taldeak guztira 22 izan arren, 3 egun gehiago izan baitira beste proba batzuk egiten ari zirelako beren taldean parte hartzerik izan ez zuten ikasleek Gizonduz prestakuntza jaso zezaten.

Kirol-, gizarte- edo hezkuntza-arloko elkarteekin eta beste antolakunde batzuekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroak

Entitatea	Edukiak	Norentzat diren	Ikastaroen kopurua	Ikastaro bakoitzaren iraupena ordutan	Orduak, guztira
ERAGINTZA	Maskulinitatea, berdintasuna eta tratu onak	Erabiltzaileak	3	1,5	4,5
APDEMA	Maskulinitateak eta berdintasuna	Lantaldea	1	2,5	2,5
LOIOLAETXEA	Gizonak, maskulinitateak, zainketak eta erantzukidetasuna	Lantaldea	2	4	8
ARRATS ELKARTEA	Maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa	Erabiltzaileak eta lantaldea	3	2 orduko 1 ikastaro eta 4 orduko 2 ikastaro	10
AEK	Maskulinitateak eta berdintasuna	Lantaldea	6	2	12
AMARABERRI Jai Batzordea	Gizonak, maskulinitateak, erantzukidetasuna eta indarkeria matxistak	Elkarteko gizonak	1	4	4
HUHEZI	Maskulinitateak, berdintasuna eta kirola	Ikasleak	1	4	4

AURREZ AURREKO IKASTAROEN BALORAZIOAK:

Jarraian, aurrez aurreko ikastaroetako partaideek emandako balorazioen batezbestekoak ageri dira, puntu 1etik 6rako baremoan neurtuta.

1.504 balorazio jaso dira: 461, emakumeek egindakoak (% 30,65); 1.022, gizonek egindakoak (% 67,95); 9, ez-binarioek egindakoak (% 0,6); eta 12k ez diote galdera horri erantzun(% 0,8). Kontuan izan behar da ikastaroa egiten duten elkarteek eta erakundeek jasotako ebaluazio-galdetegien zati batek formatu propioak dituela; hori dela eta, zaila da datu horiek bateratzea. Horregatik, ez daude hurrengo tauletan jasota.

Jasotako ebaluazio-galdetegien kopurua, sexuaren eta adinaren arabera

Ebaluazioak, sexuaren eta adinaren arabera	18-24 urte	25-30 urte	31-54 urte	55 urte eta gehiago	EDE	Guztira
Emakumeak	38	92	281	46	4	461
Gizonak	83	150	606	159	24	1.022
Ez-binarioak		2	6	1		9
Ez du erantzun		3	4	2	3	12
GUZTIRA	**121**	**247**	**897**	**208**	**31**	**1.504**

Jasotako balorazioak (1etik 6ra)[7]

	Emakumeak	Gizonak	Orokorra
Ikastaroaren balorazio orokorra	5,2	4,8	4,9
Ikasgaiaren inguruan lehendik zeneuzkan ezagutzak	3,8	3,5	3,6
Ezagutzak handitzea	4,9	4,6	4,7
Sentsibilizazioa handitzea	4,9	4,5	4,6
Edukia	5,0	4,6	4,7
Hizlaria	5,5	5,2	5,3
Dinamizazioa	5,1	4,8	4,9
Taldearen partaidetza	4,8	4,5	4,6
Antolakundea	5,1	4,8	4,9
Eremua	5,0	4,8	4,8
Erabilitako materialak	4,9	4,6	4,7
Baliagarria bizitza pertsonalerako (%)	% 95	% 88	% 91,5
Baliagarria bizitza profesionalerako (%)	% 89	% 81	% 85


[7] Ez da jaso ez-binarioen eta erantzun ez dutenen batezbestekorik, estatistikoki esanguratsuak ez direlako (ebaluazio guztien % 1,2 dira), eta batezbesteko orokorrak alteratu eta akatsak sor ditzaketelako.

Aurreko urteetan bezala, ikasleek modu positiboan baloratu dituzte hizlariak, dinamizazioa, antolakuntza eta parte hartzeko erabilitako metodologia. Ikastaroaren balorazio orokorra 4,9koa izan da. 4tik beherako balio bakarra da parte-hartzaileek prestakuntza-saioaren aurretik zuten ezagutzaren balorazioarena.

Ikastaroen balorazio orokorrak aurreko urteetakoen antzekoak dira, eta 5en inguruan daude kategoria guztietan. Oro har, esan daiteke Gizonduz Zerbitzuaren barruan eskaini diren aurrez aurreko ikastaroek bete dituztela bertaratutako ikasleen aurreikuspenak, bai eta programarenak ere.

Ebaluazio-galdetegiko alderdien inguruan egindako balorazioan, ez da desberdintasun nabarmenik ikusten sexuagatik edo adinagatik.

Ikastaroak antolatzeaz arduratu diren antolakundeen batez besteko balorazioak (1etik 6ra)



Grafikoan ikus daitekeen moduan, oso altuak izan dira ikastaroak antolatzeaz arduratu diren entitateen balorazioak.

Honako hauek izan dira ondoen baloratutako alderdiak: «trebatzailearen profesionaltasuna» (5,87), «egutegi-erraztasuna» (5,83), «Gizonduz Zerbitzuarekin komunikazioa» (5,75) eta «bizkortasuna kudeaketan» (5,75).

Honako hobekuntza hauek proposatu dira ikasleen nahiz entitate antolatzaileen balorazioetan: prestakuntza-orduak gehitzea, jorratutako gaietan sakontzea eta ikastaroek lanerako erremintak eskaintzea.

2.2.2. *ONLINE* IKASTAROAK

2.2.2.1. *ONLINE* SENTSIBILIZAZIOA, 10 ORDU

Ikastaro honetan, honako eduki hauek aztertzen dira:

- Genero-desberdinkerien jatorria.
- Zer eginkizun jokatzen duten sozializazioan sexuaren araberako rolek eta estereotipoek.
- Maskulinitate-ereduak berrikustea.
- Gizonen bizitzan, zer eginkizun betetzen duen beste pertsona eta norbere burua zaintzeak.
- Gizonen inplikazioa etxeko lanetan eta beste pertsona batzuk zaintzeko lanetan.
- Sozializazio sexistak gizonei ere eragiten dizkien genero-arazoak.
- Zer eginkizun jokatzen duen indarkeriaren legitimazioak identitate maskulinoen eraikuntzan.

Online ikastaroa 2009an hasi zen ematen. Harrezkero, 2025era arte, 2.095 lagunek (1.191 emakume eta 894 gizon) arrakastaz bukatu zuten ikastaroa.

Ikastaroa arrakastaz bukatu zuten pertsonak

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2009	42	64	106
2010	199	46	245
2011	53	18	71
2012	40	14	54
2013	30	20	50
2014	24	22	46
2015	18	25	43
2016	29	51	80
2017	21	36	57
2018	18	66	84
2019	23	59	82
2020	60	66	126
2021	138	79	217
2022	151	72	223
2023	174	95	269
2024	148	138	286
2025	119	102	224
GUZTIRA	**1.191**	**894**	**2.095**

2025ean, guztira 224 lagunek arrakastaz bukatu zuten ikastaroa (119 emakumek, 102 gizonek, 1 ez-binariok eta 2 erantzun ez dutenek). Ikastaroa egin duten gizonen proportzioa urtekoaren antzekoa baino handiagoa da: % 45,5 (aurreko urtean, % 48,2).

2.2.2.2. *ONLINE* PRESTAKUNTZA, 15 ORDU

2025ean, online ikastaro bat eman da, 15 ordukoa, IVAPekin lankidetzan eta haren prestakuntza-plataforman: "Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna: Etorkizunari begira, berdintasunerako politika publikoak eraikitzen".

Zenbait urtez 25 orduko beste ikastaro bat eman ondoren ("Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak") egokitzat jo da edukiak eta iraupena aldatzea.

ENTITATE ANTOLATZAILEA	IKASTAROA	EMAKUMEAK	GIZONAK	Ikastaroa gainditu duten ikasleak, GUZTIRA
Administrazio Publikoaren Euskal Institutua	Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna: Etorkizunari begira, berdintasunerako politika publikoak eraikitzen	25	12	37

2.2.2.3. *ONLINE* PRESTAKUNTZA, 25 ORDU

"Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak" izeneko ikastaroaren bitartez, lortu nahi da ikasleek gaitasun teorikoak eta praktikoak garatzea, aztertzeko nola eraikitzen den maskulinitatea gure gizartean. Hori guztia berdintasunaren ikuspegitik egiten da, ikasleek eskura ditzaten hala errealitatea genero-ikuspegiarekin aztertzeko ezagutzak nola errealitate hori ulertzea ahalbidetzen duten tresna metodologikoak. Jorratzen da zer maskulinitate-adierazpen dauden gure gizarteetan dauden eta zer ondorio dizkien ondorioak horrek emakumeei eta gizonei. Aldi berean, aztertzen da zer aurrerapauso eman den emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz, zein diren erresistentzia nagusiak eta zer diskurtso sexista berri agertu diren, sakondu egin da indarkeria matxistari —gazteena ere bai—, haren kausei eta adierazpen ohikoenei buruzko azterketan.

2025ean, Gizonduz – Emakundek online ikastaro horren 2 edizio egin ditu. Gainera, bi ikastaro egin dira (bat euskaraz eta bat gaztelaniaz), Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) elkarlanean, eGelaPi prestakuntza-plataforman, eta edizio bat (gaztelaniaz), Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin lankidetzan, online prestakuntzako plataforman.


EHUko master honekin lankidetzan ere aritu gara, “Indarkeria matxistak: Sareko esku-hartzea”, eta besteak beste 25 orduko online ikastaro bat eman da, masterraren prestakuntza-eskemara egokituta; ondorioz, 25 eskola-orduko iraupena izan du lau astez.

2025: Maskulinitateei buruzko 25 orduko online ikastaroa gainditu duten pertsonak

Entitate antolatzailea	Ikastaroaren izena	GIZONAK	EMAKUMEAK	EZ-BINARIOAK	Ikastaroa gainditu duten ikasleak, GUZTIRA
Emakunde-Gizonduz	2025 Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak (1. edizioa)	4	9	0	13
Emakunde-Gizonduz	2025 Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak (1. edizioa)	27	27	0	54
POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA	2025 Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak	11	5	0	16
Emakunde-Gizonduz	2025 Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak (2. edizioa)	29	26	0	55
UPV/EHU	2025 Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak	11	7	0	18
UPV/EHU	2025 Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak	15	32	0	47
Emakunde-Gizonduz	2025 Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak (2. edizioa)	12	18	1	31
	GUZTIRA	**109**	**123**	**1**	**233**

2025ean, *25 orduko online* ikastaroen 120 ebaluazio-galdetegi jaso ziren. 56 emakumek eta 42 gizonek erantzun zuten eta gainerakoek ez zuten erantzun.

2025: Batez besteko balorazioak (1etik 10era)



	Guztira
Baliagarria iruditu zaizu zure bizitza pertsonalerako? Bai	% 95
Baliagarria iruditu zaizu zure bizitza profesionalerako? Bai	% 92

Ikastaroaren balorazio orokorraren batezbestekoa (10etik 8,5) oso positiboa da. Material teorikoei nahiz laguntza-materialei ere balorazio oso ona eman zaie (10etik 8,3).

Azpimarratzekoa da, ikastaroaren gogobetetze-galdetegia egin dutenen % 95en arabera, ikastaroa baliagarria izan dela bizitza pertsonalerako, eta % 92ren arabera, bizitza profesionalerako.

2.2.2.4. *ONLINE* PRESTAKUNTZA, 30 ORDU


Kirola erreferente eta sozializazio-ardatz garrantzitsua da gizon eta mutiko askorentzat. Kirol tradizionalaren mundua oso maskulinizatuta dago, eta haren ereduak, erreferenteak eta praktikak ikuspegi matxista tradizionalean oinarritzen dira askotan. Berdintasunerako aldaketa sustatzeko, beharrezkoak dira kirol-arloko pertsonen prestakuntza, dibertsitatea eta berdintasun-balioak. Hori dela eta, 2025ean, "Maskulinitateak, berdintasuna eta kirola" ikastaroa eman da euskaraz. 6 modulu ditu eta maskulinitateen, berdintasunaren eta kirolaren zenbait alderdi landu ditu.

2025: 30 orduko *online* ikastaroa gainditu duten pertsonak

Entitate antolatzailea	IKASTAROA	EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ-BINARIOAK	Ikastaroa gainditu duten ikasleak, GUZTIRA
Gizonduz EMAKUNDE	Maskulinitateak, berdintasuna eta kirola	19	12	0	31

2025 ikasturteko lehen edizio horretan, 22 gogobetetze-inkesta jaso ziren. Emaitza esanguratsuenak hauek izan ziren:

Batez besteko balorazioak



	Guztira
Baliagarria iruditu zaizu zure bizitza pertsonalerako? Bai	% 82
Baliagarria iruditu zaizu zure bizitza profesionalerako? Bai	% 82

Ikastaroaren balorazio orokorraren batezbestekoa (10etik 8,3) oso positiboa da. Material teorikoen egokierari buruz egin den balorazioa ere oso positiboa izan da (10etik 8,1), baita laguntza-materialei buruz egindakoa ere (10etik 8,3). Interesgarria da, halaber, plataformari eta haren erabilerari buruzko balorazio azpimarratzea (10etik 7,85).

Azpimarratzekoa da ezen, ikastaroaren gogobetetze-galdetegia egin dutenen % 82ren arabera, ikastaroa baliagarria izan dela bizitza pertsonalerako, eta % 82ren arabera, bizitza profesionalerako. Azken puntu horrek garrantzi berezia du; izan ere, ikastaroa bereziki irakasleei eta ikastetxeetan diharduten hezkuntza-komunitateko beste profesional batzuei zuzenduta dago.

2.2.2.5. NEURRIRA EGINDAKO *ONLINE* PRESTAKUNTZA

Neurrira egindako online prestakuntza online ikastaroak dira, aurrez aurreko ikastaroekin osatuak. 2025ean honako ikastaro hauek eman dira.

ENTITATEA	EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ-BINARIOAK	Ikasleak, GUZTIRA
AEK (1)	28	62	0	90
Huhezi	26	11	0	37
AEK (2)	9	23	0	32
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	205	127	0	332
GUZTIRA	268	223	0	491


2.3. “GAZTEAK BERDINTASUNEAN” PROIEKTUA

«Gazteak Berdintasunean» Emakunderen Gizonduz zerbitzuaren lan-ildoa da, gazteei zuzendutakoa. Helburu du handitzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka sentsibilizatutako, prestatutako eta konprometitutako gizon gazteen kopurua eta erremintez hornitzea ere gazteekin lan egiten duten kolektibo profesionalak.

2.3.1. Ikastetxeentzako prestakuntza-programa

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe eta institutuetako (3. DBH, 4. DBH eta Batxilergoa), Lanbide Heziketako ikastetxeetako (ahal dela, Oinarrizko Lanbide Heziketako eta Erdi Mailako lehen maila) eta arautu gabeko beste irakaskuntza-zentro batzuetako nerabeei eta gazteei zuzendutako proiektua da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako kontzientziazioa, parte-hartzea eta inplikazioa sustatzea helburu duena(esteka). Programak irakasleei ere prestakuntza eskaintzen die.





Irakasleekin prestakuntza

2025ean ikastetxeen eskaintza mantendu da irakasleak prestatzeko. Ikastetxeei bidaltzen zaien hezkuntza-proposamenean adierazten den bezala, garrantzitsua da jarduera hori ikastetxeak hezkidetzarekin eta berdintasunarekin lotuta garatzen dituen helburu eta jardueren barruan kokatzea. Uste da ezinbestekoa dela irakasleen inplikazioa esku-hartzeak garatzeko orduan, eta, horregatik, irakasleei eskatzen zaie proposamen hori ezagutu eta babesteko, eta saioetan egoteko; hain zuzen ere, ebaluazioa eta jarraipena errazteko, haren eragina egiaztatze aldera. Hezkuntza-arloko maskulinitateei buruzko prestakuntza-saioak 2 eta 4 ordu artekoak dira. Komikia, mahai-jokoa eta haiekin batera doazen dinamikak hobeto ezagutzeko, eta nahi dutenean edo behar dutenean ikasleekin erabiltzen ikasteko aprobetxatzen da.

Honako ikastetxe hauetan eman zaie prestakuntza irakasleei:

IKASTETXEA	UDALERRIA
BERRIO-OTXOA BHI	Bilbao (Bizkaia)
BENGOETXE BHI	Galdakao (Bizkaia)
OÑATI BHI	Oñati (Gipuzkoa)
GOIERRI ESKOLA	Ordizia (Gipuzkoa)
MARKINA BHI	Markina (Bizkaia)
EKIALDEA BHI	Vitoria-Gasteiz

Guztira, 18 prestakuntza-ordu izan dira (16 euskaraz), eta saioetara 219 irakasle bertaratu dira (138 emakume, 78 gizon, 3 ez-binario eta 0k ez dute erantzun).

Ikasleekin prestakuntza

2016tik 2025era bitartean, guztira 82 ikastetxetan egin dira ikastaroak. Guztira, 7.457 ikaslek parte hartu dute: 2.509 neska, 4.845 mutil, ez-binario gisa identifikatutako 57 pertsona eta erantzun ez duten 46.

2025ean zehar, 15 ikastetxetan eman da prestakuntza. Hona hemen zerrenda. Haietako zazpitan ez zen esku-hartzerik izan aurreko urtean


IKASTETXEA	UDALERRIA
DURANGO BHI	Durango (Bizkaia)
BENGOETXE BHI	Galdakao (Bizkaia)
MENDIZABALA LHI	Vitoria-Gasteiz (Araba)
MERCEDARIAS	Leioa (Bizkaia)
EASO POLITEKNIKOA	Donostia (Gipuzkoa)
OÑATI BHI	Oñati (Gipuzkoa)
SAN NIKOLAS IKASTOLA	Getxo (Bizkaia)
UNAMUNO BHI	Vitoria-Gasteiz (Araba)
IMH Fabrikazioaren Zentro Aurreratua	Elgoibar (Gizpuzkoa)
SEBER ALTUBE IKASTOLA	Gernika (Bizkaia)
ARESKETA IKASTOLA	Amurrio (Araba)
EAGI	Lasarte (Gipuzkoa)
LASALLE	Donostia (Gipuzkoa)
SAN VIATOR LHI	Sopuerta (Bizkaia)
BERRIO-OTXOA BHI	Bilbao (Bizkaia)

Ikasleei dagokienez, parte-hartzaileen kopurua mantendu egin da: 1.249 izan ziren 2024an, eta 1.229, berriz, 2025ean. Horietatik, 457 neskak ziren, 718 mutilak, ez-binario gisa identifikatutako 13 pertsona zeuden, eta 41ek ez zioten galdera horri erantzun.

Orduen kopuruari dagokionez, 244 prestakuntza-ordu eman dira, 71 talde-gelatan, honela banatuta: 3. DBHko 12, 4. DBHko 26 eta LHko 33. Horrek esan nahi du ikasleekin egindako prestakuntzen % 46,5 LHn izan direla, eta gehienetan, gainera, espezialitate oso maskulinizatuetan.

Euskara izan da saioetan gehien erabilitako hizkuntza: lehen aipatutako 244 ordu horietatik, 200 euskaraz izan dira (% 82 baino zertxobait gehiago, 2024ko % 70arekin alderatuta), eta 44 gaztelaniaz.

Prestakuntzak eman duten ikastetxeen balorazioek (1etik 6ra) erakusten dute ikastaroak hein handian gogobete dituela




Komiki interaktiboa erabiltzen jarraitu da, sei binetekin. Zenbait pertsonaiak bizitako sei egoera irudikatzen ditu, eta bertako pertsonaien jarrerek aukera ematen dute sexismoari, homofobiari, indarkeriari, tratu onei, arrisku-jokabideei eta abarrei buruz hausnartzeko. Komikiaren eszena bakoitza inkesta batekin amaitzen da, abiapuntu gisa balio duena gai bakoitzari dagozkion unitate didaktikoak lantzeko.

Ikastetxeek duten beste tresna bat *Seducción con sombrero-Kapelaz liluratu* mahai-jokoa da, hezkidetzako jolas-tresna gisa sortua; hain zuzen ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko eta maskulinitate berdinzaleak sustatzeko, hezkuntza emozionala lantzeko eta gizarte-trebetasunak eskuratzeko estrategiak baliatuta.

Ikasleek egindako balorazioei dagokienez, guztira, 1.167 balorazio jaso dira: Mutilen 639 balorazio jaso dira, nesken 468, ez-binario gisa identifikatutako pertsonen 13, eta beste 47k ez zioten erantzun galdera horri.

Saioei buruz ikasleek egindako balorazio orokorra (1etik 6ra) positiboa da



2.3.2. Familia-laguntzarik gabeko adingabe eta gazteentzako eta adingabeak hartu eta babesteko zentroentzako prestakuntza-programa

Proposamen horrek honako hauek sentsibilizatu eta prestatu nahi ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean: familia-laguntzarik gabeko adingabeak eta gazteak edo adingabeak hartu eta babesteko EAEko zentroetan daudenak. Bestalde, programak biztanleria horrekin esku hartzen duten zentro, antolakunde edo erakundeetako profesionalentzako prestakuntza ere jasotzen du. Ondorioz, ikuspegi intersekzional batetik lan egiten da, programan parte hartzen duten nerabeen eta gazteen errealitatearen hainbat aldagai kontuan hartzen baitira(esteka).

2025ean, guztira 163 prestakuntza-ordu egin dira, adingabeei eta gazteei zuzenduak eta zentro eta baliabideetan esku hartzen duten profesional-taldeei zuzenduak.

Prestakuntza-ordu horiek honela banatu dira:

- Adingabeentzako prestakuntza-orduak: 70 ordu
- Profesional taldeentzako prestakuntza-orduak: 93 ordu

Aldi honetan, 9 antolakunderekin aritu gara lanean, gehienak adingabeak hartu eta babesteko zentroetan zuzeneko esku-hartzea dutenak. Aurten, guztira 7 zentrotan esku hartu da, eta horietako batzuk antolakundeak berak kudeatzen zituen. Esan beharra dago adingabeekin edo gazteekin aritzen diren antolakunde batzuek erabiltzen dituzten proiektu edo programetan erabiltzaileek ez dutela nahitaez bizi behar. adingabeentzako zentro batean edo babesteko batean IRSE-Araba eta Araban irekitako neurri judizialen programa da horietako bat, bai eta Trapezistak programa ere.

Nabarmendu behar da zenbait prestakuntza egin direla soilik antolakundeetako hezkuntza-taldeekin; horren adibide dira Izan Fundazioa eta Norbera programa eta Eudes Fundazioa, 13 urtez azpiko adingabeekin lan egiten duena.

Aurreko urtean bezala, 8 orduko prestakuntza egin da Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politikak Departamentuko Haurren eta Nerabeen Babesa Zerbitzuarekin.

Segidan, lanketa egindako entitateak, antolakundeak eta zentroak daude:

ANTOLAKUNDEA	ADINGABEAK HARTU ETA BABESTEKO ZENTROA	UDALERRIA
FUNDACIÓN OBARBURU	Bideberria zentroa	Vitoria-Gasteiz (Araba)
BABESTEN	Aixola Adingabeentzako Zentroa	Elgeta (Gipuzkoa)
BIZGARRI	Urduñako Egoitza Zentroa	Urduña (Bizkaia
	Urdulizko Egoitza Zentroa	Urduliz (Bizkaia)
FUNDACIÓN IZAN	Norbera proiektua (talde profesionala)	Donostia (Gipuzkoa)
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Zainketa eta Gizarte Politikak Departamentuko Haurren eta Nerabeen Babesa Zerbitzua	Donostia (Gipuzkoa)
EUDES FUNDAZIOA	Lezoko Etxea/Uliako Etxea (talde profesionala)	Donostia (Gipuzkoa)
ZABALDUZ	Trapezistak programa	Hernani (Gizpuzkoa)
IRSE-EBI	Urretxuko Adingabeentzako Egoitza Zentroa	Urretxu (Gipuzkoa)
	IRSE-ARABA	Legorreta (Gipuzkoa)
IRSE-ARABA	Arabako Ingurune Irekiko Hezkuntza Zentroa	Vitoria-Gasteiz (Araba)

2025ean, 23 ikastaro egin dira, adingabeei zein profesional taldeei zuzenduak.

- Adingabeen kopurua: 110 (7 neska eta 103 mutil).
- Profesionalen kopurua: 132 (80 emakume eta 52 gizon).


Amaitzeko, esan beharra dago ezen, guztira, 242 pertsonak hartu dutela parte prestakuntzetan, 155 gizonek (% 64) eta 87 emakumek (% 36).

Ikasleek egindako balorazioei dagokienez, guztira 110 balorazio jaso dira. Zenbaitetan, ebaluazio kuantitatiboaz gain, ebaluazio kualitatiboagoa ere egin da, ahoz, eta, horri esker, hobetzeko ideia eta proposamen batzuk jaso dira; izan ere, adingabe batzuentzat errazagoa da ahoz adieraztea idatziz baino.

Profesional taldeetako kideen ebaluazioak 127 dira guztira.

Adingabeen balorazio orokorrak oso positiboak izan dira (1etik 6ra) eta ebaluatutako kategoria guztiak 5etik gora daude. Ikastaroaren balorazio orokorra (5,4) nahiz erabilitako dinamikak (5,4) eta prestatzaileak (5,5) oso modu positiboan baloratu dira.

Batez besteko balorazioak (1 eta 6 artean)




Bestalde, **talde profesionaletako kideen balorazioak** ere oso positiboak izan dira. Ikastaroaren balorazio orokorra 5,2koa izan da. Baloraziorik onena lortu duen kategoria hizlariari buruzkoa izan da (5,6). Edukia (5,1), dinamizazioa (5,2) eta antolakuntza (5,1) kategoriak ere ongi baloratu dira. Kategoria batzuek puntuazio baxuagoak izan dituzten arren ––aurretiazko ezagutzak (4), ezagutzen areagotzea (4,8) eta sentsibilizazioaren areagotzea (4,9)––, datu oso positiboak direla uste da, eta argi dago beharrezkoa eta garrantzitsua dela gai horiek lantzen eta sakontzen jarraitzea. Esan beharra dago ezen talde profesionalentzat erabilitako galdetegia desberdina izan dela, eta adingabeekin erabilitakoa baino zabalagoa.



Azkenik, ikusten dugu oso positiboak direla prestakuntzetan parte hartzen duten entitateen ebaluazioak ere, eta nabarmentzekoak direla “prestatzaileen profesionaltasuna” (6), “Gizonduzek eskainitako komunikazioa eta tratua” (6) eta “entitatearen beharretara edukiak egokitzea” (5,83). Garrantzitsua da azpimarratzea oso handiak izan direla ikastaroarekiko gogobetetze-mailari (5,49) eta entitate antolatzailearen helburu eta itxaropenen betetze-mailari (5,35) buruzko puntuazioak. Bestalde, nahiz eta puntuaziorik baxuena izan adingabeen sentsibilizazioa handitzeari buruzkoa (4,63), uste dugu puntuazio ona dela, eta berretsi egiten duela adingabeen sentsibilizazioan eta kontzientziazioan lan egiten jarraitzeko erronka (pertsona horiekin lan egiten da programan).

Batez besteko balorazioak (1 eta 6 artean)



2.4. "GIZON POLITIKARIAK BERDINTASUNAREN ALDE" PROIEKTUA

2017an, martxan jarri zen ekimen bat da, kargu politikoak dituzten gizonei zuzendua, lortzeko beren eragin-eremuan berdintasuna sustatzea eta, bereziki, beste gizon batzuen artean konpromiso pertsonala eta kolektiboa sustatzeko kausa horrekiko.


Horretarako, gizon politikarien bi talde sortu ziren: bata Eusko Jaurlaritzaren barruan eta bestea udal-mailan, EUDELekin lankidetzan. Prestakuntza, gogoeta eta elkartrukerako espazioak ziren, eta helburua zen politikan lan egiten duten gizonen partaidetza eta inplikazioa indartzea, gizon horiek erreferenteak baitira eta erabakiguneetan parte hartzen baitute.

Gizon politikariekin egindako lan hori jardunbide egoki gisa aurkeztu zen Europako Udalerrien eta Eskualdeen Biltzarrak 2019ko azaroaren 19an Bruselan antolatutako #InvolveMen nazioarteko mintegian.



Bideo honetan daude laburbilduta esperientziaren lehenengo faseko ideiak eta helburuak.

Gizon politikariak berdintasunaren alde



Esperientzia positiboki baloratu ondoren, ekimenari jarraipena emateko asmoz, 2020aren hasieran bigarren fase bati ekin zitzaion, oinarritzat hartuta gizon kargu publikodunei zuzendutako berdintasunerako gida-zirriborro bat. Gida-zirriborro hori egiteko, 5 lan-saio egin ziren (2 Eusko Jaurlaritzako politikariekin, 2 tokian tokiko politikariekin eta saio bateratu bat), eta, guztira, 25 gizonek hartu zuten parte.

Halaber, 2019tik aurrera, antzeko prestakuntza-prozesuak egin ziren Aiarako eta Kanpezu-Arabako Mendialdeko kuadrilletako gizon politikariekin.

Gainera, 2021ean, bi prestakuntza-ildo jarri ziren abian, Administrazio autonomikoetan, foru- eta toki-administrazioetan, Eusko Legebiltzarrean eta Batzar Nagusietan postu politikoak betetzen dituzten gizon guztientzat irekiak. Alde batetik, solasaldiak egin ziren berdintasunean adituak diren pertsonekin eta, bestetik, «prestakuntza-topaketak» direlakoak; hau da, aldizkako *online* saioak, bereziki gizon politikarientzat diseinatutako prestakuntza-pilula formatuan. 2021az geroztik, 9 prestakuntza-saio egin dira.

2025ean hainbat prestakuntza-saio egin dira kargu politikoak dituzten gizonentzat. Aurrez aurreko bi saio egin ziren diputatuekin eta zuzendariekin, Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan. Saio horietan, gai hauek aztertu ziren, besteak beste: zaintza eta erantzukidetasuna eta maskulinitateei lotutako genero-ondoezak eta arrisku-jokabideak. 23 gizonezkok hartu zuten parte.

Abenduan izan zen online saioa: “Gizonen egitekoa berdintasunaren aldeko eraldaketaren eragile gisa, erreakzio neomatxistaren egungo testuinguruan”; Hilario Sáez Méndezen parte-hartzea izan zuen. Saioan, 73 gizon politikarik hartu zuten parte eta balorazio oso positiboa lortu zuen (10etik 8,1eko puntuazio orokorra). Saioaren edukiak 7,8 puntu lortu zituen; hizlariak 8,5, gaiari buruzko ezagutzaren areagotzeak, 7,6, eta sentsibilizazio-mailaren areagotzeak, 8,1.

Azpimarratzekoa da ezen arlo honetan egindako lana jardunbide egokitzat jo dela Equimundok Save the Children, Oxfam, MenEngage Alliance eta Nazio Batuen Fundazioaren laguntzarekin egindako *State of the World’s fathers 2021* txostenean.

Gizonduzen eragin politikoaren ardatzaren esparruan, 2025eko otsailaren 28an «Gizonekin eta maskulinitateekin berdintasunaren alde lan egiteko estrategiak Euskadin» jardunaldia egin zen Vitoria-Gasteizko Europa Biltzar Jauregian, esku-hartze eremu horretan interesa duten sektore publiko eta pribatuko pertsona eta erakundeei zuzenduta.

Jardunaldiak helburu bikoitza izan zuen: alde batetik, Emakundek berdintasunaren aldeko gizonen inplikazioa indartzea helburu duen estrategiaren oinarriak eta ildo nagusiak ezagutaraztea; eta, bestetik, hausnarketarako eta parte-hartzerako gune bat sortzea, estrategiaren garapen eta ezarpenerako ekarpenak jasotzeko.

Edukiak hainbat ardatzen inguruan antolatu ziren: gizonekin eta maskulinitateekin berdintasunaren alde lan egiteko ikuspegi, estrategia eta jarraibide nagusiak; «Maskulinitatearen Kutxa Euskadin» ikerketaren emaitzen aurkezpena, euskal herritarren artean maskulinitateen eraikuntza, jarrerak eta eragina aztertzen dituena; kanpoko aholkularitza-enpresa batek egindako Gizonduz ekimenaren ibilbidearen ebaluazioa; eta Gizonduz 2030 Estrategiaren aurkezpena.

Jardunaldia eztabaida-taldeetan antolatutako parte-hartze gune batekin amaitu zen. Bertan, parte-hartzaileek planteatutako ildoen inguruan hausnartu, gizonekin eta maskulinitateekin lan egiteko esku-hartze proposamenak egin eta ondorio nagusiak partekatu zituzten bateratze-saio batean.

2.5. "GIZON ADINTSUAK BERDINTASUNAREN ALDE" PROIEKTUA

2023an, proiektu pilotu hau adineko gizonekin esku-hartzeko genero-ikuspegia duen ildo berri bat irekitzeko diseinatu eta garatu zen, adineko pertsonekin jarduteko estrategiekin lerrokatuta, gizonei begirakoa, zeinak barne hartzen baitu maskulinitateei eta zahartze-prozesuari buruzko hausnarketa, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta adineko gizonen bizi-kalitatea hobetzeko asmoz.

Proiektu pilotuak *Zer gertatzen zaigun gizonoi zahartzean eta nola daramagun* zuen izena, eta bost tailer eman ziren Gasteizko Koroatzeko BIZAN Zentroan. Hauek ziren hausnartu beharreko gai nagusiak: maskulinitatearen eraikuntzaren kontzientzia hartzea bizi-unearekin lotuta, enplegutik erretirorako trantsizioa eta denboraren erabilera berriak, erantzukidetasuna eta zainketak, autozainketa eta osasuna, harreman sozialak eta bakardadea.

Lehen proiektu horretatik abiatuta, eta Gizonduzek eta BIZAN adinekoen zentroetako arduradunek oso balorazio positiboa egin ondoren, Gizonduzen prestakuntza-eskaintzan sartu da. 2023ko udazkenean, tailer berriak egin ziren Gasteizko BIZAN Los Herrán zentroan, eta, 2025ean, aurrera eraman ez diren bi deialdi izan dira; beraz, 2026rako estrategia aldatzea aztertzen ari gara.

2.6. AHOLKULARITZA ETA LANKIDETZAK

Emakundek, Gizonduzen bitartez, doako aholkularitza-zerbitzua eskaintzen die entitate publiko eta pribatuei, urtean gehienez 30 ordukoa, gizonen, berdintasunaren eta maskulinitateen eremuko proiektuak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko.

Proiektu horiek lotuta egongo dira esku-hartze adierazgarriekin, zeinak zuzenduta egongo dira areagotzera entitate horietako gizonek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko, erantzukidetasunarekiko, zaintzarekiko eta indarkeria matxistaren aurkako konpromisoa,

edo lidergo- eta antolamendu-eredu maskulinizatuak egokitzera; era berean, lotuta egon daitezke beste helburu batzuk lortzeko esku-hartzeekin ere, betiere Gizonduzen helburuak lortzen laguntzen badute.

Aholkularitza honako zeregin honetan datza: dokumentazioa, orientabideak, gomendioak, kontaktuak, jardunbide egokiak eta prestakuntza ematea edo dokumentazioa berrikustea(esteka).

2025ean honako elkarlan-akordioa hauek egin dira:

- Hutchinson-Intecsa
- Enkarterriko Mankomunitatea
- Aretxabaletako Udala
- Idiazabalgo Udala
- Aloña Mendi Kirol Elkartea
- BRODERS proiektua

2.6.1. Hutchinson-Intecsa

2025ean, Hutchinson-Intecsa enpresari aholkularitza eskaini zitzaion enpresa horretan aztertzeko zein den, gaur egun, enpresa horretako emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, berdintasunaren sustapenean gizonak sartzeko berariazko ikuspegiarekin.

Hutchinson-Intecsa eta Gizonduzen arteko zenbait bileraren ondoren, eta berdintasunari buruzko enpresako funtsezko dokumentu batzuk aztertuta lortutako informazioarekin, erabaki zen ondorioen eta gomendioen txosten bat egitea, gizonak emakume eta gizonen arteko berdintasunean txertatzeko berariazko ikuspegiarekin.

Dokumentu hauek aztertu dira:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana.
- Kontziliazio erantzukidearen alorreko plana.
- Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren protokoloa.
- Gai horiei buruz langileei egindako inkestak.

Honako hauek izan dira planteatutako helburuak:

- Genero-berdintasunean hobetu beharreko arloak identifikatzea, maskulinitateei begiratuta, eta antolakundearen kulturan duen eragina.
- Gomendioak proposatzea (prestakuntza-ekintzak, sentsibilizazio-kanpainak, etab. izan daitezke) berdintasunaren arloan eta gizonekin edo maskulinitateekin egiten den lana txertatzeko eta hobetzeko.

Egindako ekintzak eta hartutako neurriak hauek izan dira:

1. Enpresako funtsezko dokumentuen azterketa: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana, Kontziliazio erantzukidearen alorreko Plana, Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren Protokoloa eta aurretiaz egindako inkestak.
2. Bilerak proiektua gauzatzeko arduradunekin edo eragileekin.
3. Inkesta bat garatzea eta egitea langileentzat, berdintasunari, gizonei eta maskulinitateari buruzko pertzepzioan oinarrituta.
4. Dokumentu bat sortzea ondorio eta gomendioekin, berdintasunaren eta maskulinitateen arloko lana enpresan txertatzeko. Dokumentu horretan prestakuntza-proposamen bat dago berdintasuna eta maskulinitateak lantzeko:

2.6.2. Enkarterriko Mankomunitatea

Enkarterriko Mankomunitatearekin, jarduketa-plan bat diseinatu zen 2024. eta 2025. urteetarako, hainbat eremu eta sektore estrategiko barne hartuta.

2025ean, bilera bat egin zen Mankomunitateko berdintasun-teknikariarekin, eta, ondoren, telefonoz egon ginen harremanetan, berrikusteko lankidetza-hitzarmenaren barruko esku-hartze proiektuan ikusitako jarduerak, eta egingarrienak bultzatzeko.

2025eko bigarren seihilekoan edo 2026an, planteatu zen berriro heltzea jarduketa-eremu hauei:

- Udaletako eta Mankomunitateko teknikariak: teknikarientzako prestakuntza.
- Enpresa-arloa (ENKARTERRI GROUP): prestakuntza-eskaintza enpresa-eremuan emandako hitzaldien bidez, beste batzuetan egin bezala. Gizonduzek malgutasuna du egon daitezkeen eskarietara egokitzeko.
- Kirol-arloa: kirol-erakundeentzako prestakuntza-proposamena.
- Herritarrak: herritarrentzako hitzaldiak Gizonduzen helburuen arabera, berdintasunarekin zerikusia duten daten inguruan.

Hona hemen 2025. urtean gauzatutako ekintzak:

1. Hezkuntza-arloa: Sopuertako San Viator ikastetxean prestakuntza-saioak egin dira, ikastetxeentzako Gazteak Berdintasunean proiektuaren harira:
2. Enpresa-arloa: Gizonduzek enpresentzako prestakuntza-proposamena igorri zuen.
3. Kirol-arloa: kirol-erakundeentzako prestakuntza-proposamena igorri zen.

2.6.3. Aretxabaletako Udala

Aretxabaletako Udaleko Berdintasun eta Gazteria Mahaiarekin, jarduketa-plan bat egin zen 2025-2026 urteetarako, gizon gazteen sozializazio-eremuetan maskulinitate hegemonikoak duen eraginari buruzko diagnostikoa egiteko eta proposamenen dokumentu bat egiteko maskulinitate askotariko eta berdinzaleei buruzko proiektu oso eta jasangarri bat egin zedin Aretxabaletako gizonezko gazteentzat.

2025. urtean, 4 bilera egin dira lankidetza-plana egin, idatzi eta abian jartzeko.

2025ean, ekintza hauek egin dira:

1. Aurrez aurreko saio bat, Aretxabaletako Kurutzebarri institutu publikoko 4. DBHko ikasleei inkesta bat egiteko maskulinitateei buruzko uste eta jarrerei buruz . Saioan, 57 neska-mutilek hartu zuten parte.
2. Elkarrizketa bat Aretxabaletako Kirol Elkarteko arduradunari.
3. 6 mutil gazteko talde fokala, Aretxabaletako Lanbide Eskolako mendeko pertsonen arretarako erdi-mailako zikloko lehenengo mailako ikasleekin.
4. Tokiko taldeei (tokiko mugimendu feministakoak eta LGTBIQ+ kolektiboak) igorritako bi galdetegi.

2.6.4. Idiazabalgo Udala

Irailean, Idiazabalgo Udalaren eskakizun bat jaso zen, diagnostiko bat egin nahi baitzuten gizon gazteen sozializazio-eremuetan maskulinitate hegemonikoak duen eraginari buruz, eta proposamen-dokumentu bat egin ere nahi zuten maskulinitate askotariko eta berdinzaleei buruzko proiektu oso eta jasangarri bat egin zedin Idiazabalgo gizonezko gazteentzat.

2025ean, 3 bilera egin dira eta 2026rako jarduketa-plana adostu da.

2.6.5. Aloña Mendi Kirol Elkartea

Oñatiko Aloña Mendi Kirol Elkartearekin, eskubaloiaren atalean, jarduketa-plan bat egin zen 2024. eta 2025. urteetarako, elkartearen eguneroko jarduerak genero-ikuspegitik berrikusteko, genero-desberdinkeriak eta -diskriminazioak identifikatu eta zuzentzeko, elkarteko estamentuak berdintasunaren alde eta maskulinitatearen eta kirolaren arteko harremanaz sentsibilizatu eta prestatzeko, eta, era berean, indarkeria matxistari aurrea hartu eta kirol-eremuan errespetua eta tratu onak sustatzeko.

2025. urtean, 3 bilera egin dira 2026an garatzeko ekintzak landu eta planifikatzeko.

2025ean, honako ekintza hauek egin dira:

1. Elkarteko instalazioetara ikustaldia: aldagelak, jokalekuak, materiala.
2. Kartelen azterketa.
3. Antolakuntza-lanen azterketa: entrenamendu-ordutegiak, bilera-ordutegiak, jokaleku-banaketa entrenamenduetan, zuzendaritzako langileen, teknikarien eta boluntarioen artean lanak banatzea, eta entrenamenduetako materialen banaketa eta erabilera, besteak beste. Hori guztia genero-ikuspegitik.
4. In situ ikustea eta aztertzea, genero-ikuspegitik, elkarteko taldeen 3 partida, adin eta sexu desberdinetakoak.
   a. Emakumeak, gazte maila.
   b. Mutilak, gazte maila.
   c. Mutilak, senior maila.

Partidak analizatzearen xede nagusiak ziren: jendearen jokabidea eta jarrerak, entrenatzaileen eta jokalarien arteko elkarrekintzak, jokalarien beraien jokabideak eta jarrerak.


5. Hiru elkarrizketa egin ziren elkarteko oinarrizko egiturako hiru sektorerekin:
   a. Zuzendaritza: elkarteko presidentea.
   b. Entrenatzaileak: Emakumezkoen taldeetako 2 entrenatzaile.
   c. Familiak: elkarteko taldeetako jokalarien aita bat eta ama bat. Online egindako hiru elkarrizketa izan ziren, bakoitza ordubetekoa.

Elkarrizketa horien helburu nagusia zen pertzepzioak biltzea elkartean bizi eta hautemandako maskulinitate-ereduei, antolakuntza-kulturari, balioei, lidergotzako ereduei eta erantzukidetasunari buruz, eta indarkeria matxisten eta dibertsitatearen gaineko pertzepzioak eta sinesteak ere biltzea.

6. Ekintza horiei guztiei esker, testuinguruaren irudi zehatza egin da, eta erronkak eta aukerak identifikatu dira elkartean berdintasunaren eta maskulinitateen alde.

2025eko maiatzean eta ekainean, gomendio-dokumentua egin zen, eta 2025eko ekainaren amaieran eman zitzaion Elkarteari.

Ondoren, uztailean, bilera bat egin zen beharrezko zehaztasunak eta azalpenak emateko gomendioen dokumentuari buruz, eta planifikatzeko nola sozializatu tokian bertan 2024ean eta 2025ean egindako baterako lana. 2026. urtean garatuko dira planifikatutako gainerako jarduerak, hala nola partidak zuzenean ikuskatzea eta elkarteko ordezkariekin elkarrizketak eta prestakuntza-ekintza gehiago, beharrezkoak balira.



2.6.6. “Dare to Care” Programa

Gainera, lankidetza teknikoarekin jarraitu da Dare to Care (2023-2026) nazioarteko proiektuaren esparruan. Proiektu horrek emakumeen ahalduntzea sustatu nahi du, gizonak etxeko lanetan eta zaintza-lanetan inplikatuz.

Programa Afrika iparraldean eta Ekialde Hurbilean gauzatzen da, UN Women erakundearen gidaritzapean, eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak (eLankidetza) finantzatzen du, Suediako eta Alemaniako lankidetza-agentziekin batera.

Lankidetza teknikoa hainbat eremutan garatzen da; besteak beste, honako hauetan: gazteria, lider eta erakunde erlijiosoak eta politikan diharduten gizonak. Zehazki, 2024ko abenduaren 4an eta 5ean, Emakundek Aswanen (Egipto) parte hartu zuen, herrialde arabiarretan erabakiak hartzeko karguak dituzten gizonen berdintasunaren aldeko sarearen urteko topaketan. Emakundek jakitera eman zuen zer lan egiten duen 2017tik aurrera Gizonduz esparruan, EAEn kargu politikoak dituzten gizonen inplikazioa sustatzeko asmoz. Hain zuzen ere, lan hori inspirazio-iturri izan zen UN Women erakundeak sustatutako sarea eratzeko. Sarea Egipto, Jordania, Libano, Maroko, Palestina eta Tunisiako ordezkariek osatzen dute.

2025ean, programarekin lankidetzan jarraitu da. Batetik, Hand in Hand kanpaina hedatu da, gizonak eta mutilak zaintza-lanetan inplika daitezen, eta, bestetik, abenduaren 10ean eta 11n, Emakundek parte hartu du, Kairon (Egipto), erabakiak hartzeko karguak dituzten gizonen berdintasunaren aldeko sareko urteroko bigarren topaketan. Francisco Javier Cortes eLankidetzako zuzendariak inaugurazioan hartu zuen parte, eta Ander Bergara Emakundeko Erakunde arteko Lankidetzako arduradunak, berriz, aditzera eman zuen zein izan diren azken berrikuntzak EAEn kargu politikoak dituzten gizonen inplikazioa sustatzeko Gizonduzen esparruan egiten den lanean.

2.6.7. BRÓDERS proiektua

Bróders proiektua pentsatuta dago mutil eta gizon gazteentzat, hitz egin, zalantzak partekatu, laguntza eskatu eta komunitatea sortzeko, genero-estereotipoak zalantzan jar daitezen eta maskulinitate anitz eta berdinzaleak sustatu daitezen. Fundación Iniciativa Social (FIS) eta Laintersección elkarteek sustatu dute proiektua, eta oinarritzen da elementu hauek dituen web eremu batean:

Foro bat, galderak egin eta iritziak emateko zenbait gairi buruz, hala nola harremanak, osasuna edo gaurkotasuneko gaiak, modu anonimoan eta errespetuz.

Txat anonimo bat, entzuteko eta lagun egiteko berariaz trebatutako boluntarioekin.


Laguntza profesionala, aurretiazko hitzordu bidez.

Gaien gunea, zenbait gairi buruzko testu eta bideoekin: harremanak, sexualitatea, estetika edo arrakasta pertsonala. Sakontzeko material gehigarria ere badago.

2025ean, Gizonduzen bidez, Emakundek lankidetza-ildo bat hasi du webgunea editatu eta euskaraz jartzeko (esteka) eta boluntario euskaldunen talde bat sortzeko, askotariko elementuak artatu ahal izateko. Hori guztia, sustatu, hedatu eta erabiltzeko Gazteak Berdintasunean programaren esparruan egiten diren hezkuntzako esku-hartzeetan baliabide gehigarria.

2.7. "GIZONOK ESAN ETA EGIN" KANPAINA

2018an aurkeztutako kanpaina honen bidez, Emakundek jarraipena eman nahi dio 10 urtetan baino gehiagotan zehar Gizonduz ekimenaren bidez egin den lanari, hala, EAEko gizonek konpromisoa har dezaten aurrerapauso bat gehiago eman dezaten eta beren egunerokotasunean ekintza jakin batzuk egiteko berdintasunaren alde, hala nola erantzukidetasunaren esparruan, zaintzan, indarkeria matxista desagerrarazteko orduan, berdintasun-ideiak hedatzean edo mezu eta jarrera sexistak salatzeko orduan.



Horretarako, aplikazio informatiko bat jarri da haien eskura, eta, urrats gutxi batzuetan, gizonek test bat egin dezakete beren sexismoa autoebaluatzeko; era berean, zenbait konpromiso aukera ditzakete, eta, horiek praktikan jartzeko, aplikazioak berak hainbat baliabide eta jarraipen-sistema bat eskaintzen ditu.

Gizonek berdintasunaren alde duten inplikazioa ikusgarriago egiteko, aplikazioak aukera ematen du interesa duten gizonek beren konpromisoa publiko egiteko. 2025era arte, 280 gizon sartu dira aplikazioan, eta konpromiso pertsonalak hartu dituzte beren gain.




Bideo honek esperientziaren ideiak eta helburuak laburbiltzen ditu.

"Gizonok esan eta egin" kanpaina

2.8. JARDUNALDIETAN ETA KONGRESUETAN PARTE HARTZEA

Hainbat jardunaldi eta kongresutan parte hartu dugu, Zerbitzuaren bidez egiten den lana erakusteko.

- Urtarrilak 16 (online). "Irekitako leihatila" jardunaldia, Fundación Iniciativa Social eta MenEngage Iberiak antolatuta, gaia izan da "Praktika onak: erantzukidetasun eta maskulinitateen arloan enpresei zuzendutako prestakuntza".
- Otsailak 20 (Vitoria-Gasteiz): Koldo Mitxelena BHIk antolatutako *Mintzakafea*, maskulinitateei buruzko lantaldeak eskainiz.
- Martxoak 7 (Bilbo): Martxoaren 8ko jardunaldia, SPRI Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak antolatuta.
- Apirilak 3-5, CIMASIGUAL III (Elche): Komunikazioa, kultura eta ikus-entzunezko bitartekoei buruzko biltzarra. "Gazteak Berdintasunean 2.0. Ikastetxeetan bideojokoen eta komiki interaktiboen bidez maskulinitatek lantzeko esperientzia"
- Maiatzak 13 (Vitoria-Gasteiz): Hitzaldia, "Maskulinitatea, berdintasuna eta balio-aldaketa", Sirimiri kultura zerbitzuen elkarteak antolatuta.
- Urriak 24. Erantzukidetasunari eta maskulinitate berdinzaleei buruzko II. Foroa (Cáceres): Cepaim Fundazioak antolatutakoa Extremadurako "Masculinidades corresponsables" programaren barruan. Berdintasun-politikak eta gizonezkoak gaiari buruzko hitzaldia eta jardunbide egokiaren aurkezpena mahaian, "Maskulinitateak, berdintasuna eta lan-mundua".



- Azaroak 7. Donostialdea ESIan Berdintasunari buruzko IV. Jardunaldia Berdintasunerako eredu berriak (Hernani): “Maskulinitatearen kutxa Euskal Autonomia Erkidegoan. Maskulinitateen eraikuntza, jarrerak eta inpaktua Euskal Autonomia Erkidegoko biztanlerian” txostenaren aurkezpena
- Azaroak 21 (Bilbo): A25 inguruan sentsibilizatzeko jardunaldia Eragintza Fundazioaren erabiltzaileentzat. Hitzaldia: *Gizonen egitekoa indarkeria-matxistan.*
- Abenduak 10-11 (Kairo): Erabakiak hartzeko postuetan dauden gizonen berdintasunaren aldeko Nazioarteko Sarearen urteroko bigarren topaketa, Arabiar estatuetako emakumeen NBEren Eskualdeko Bulegoak antolatua. Hitzaldia “EAEn kargu politikoak dituzten gizonezkoen inplikazioa”.

3.0 Jarraipena eta ebaluazioa

Atal honetako taulan dago jasota, eskura dagoen informazioaren arabera, zer bilakaera izan duten 2025era arte Gizonduzen esku-hartzeko hiru esparrurekin zerikusia duten jarraipen eta ebaluaziorako adierazle batzuek: sentsibilizazioa, prestakuntza, lankidetzak eta erantzukidetasuna etxeko lanetan eta zaintza-lanetan.

Lehenengo hiru alorrei buruzko adierazleak (sentsibilizazioa, prestakuntza eta lankidetzak) emaitza-adierazleak dira. Emaitza-adierazleek neurtzen dute zein diren Gizonduzen egindako jarduera nagusietako batzuen ondorioak, eta komeni da argitzea taulan badirela gelaxka batzuk daturik ez dutenak, aztertutako urteetan martxan jarri ez ziren jarduerei buruzkoak baitira.

Etxeko lanetan eta zaintzan duten erantzukidetasunari buruzko adierazleak inpaktu-adierazleak dira, eta saiatzen dira neurtzen zer aldaketa izan diren eragin nahi den gizarte-errealitatean. Ezin da jakin programak zenbaterainoko eragina izan duen haren bilakaeran, eta, ziurrenik, eragin mugatua izango du; izan ere, programaren aukerak gainditzen dituzten egiturazko faktore askoren araberako helburu bati lotutako gizarte-aldaketaren adierazleak dira. Hala ere, programak aldaketa horiek lortzen lagundu nahi du, eta horregatik jaso dira taulan.

Bestalde, inpaktu-adierazleetan jasotzen diren datu gehienen jatorrian, urtero egindakoak ez diren estatistikak edo azterlanak daude. Horregatik, beti ez datoz bat adierazitako urtearekin. Taulan jasotako datuak aipatutako urte bakoitzean eskuragarri zeudenak dira.

1. SENTSIBILIZAZIOA	2007	2010	2015	2020	2025
1.1 Gizonduzen sentsibilizazio-ikastaro batean parte hartu duten gizonen kopurua (10 ordura arte).	-	1.066	4.297	6.151	11.254
1.2 Gazteak Berdintasunean programan parte hartu duten gizonezko ikasleen kopurua[8].	-	-	-	1.068	5.161
1.3 Aurrez aurreko ikastaroetara joaten diren gizonen ezagutza-mailaren batezbesteko hazkundea (1-6 eskala).	-	-	-	-	4,6

[8] 2024tik, adingabeak hartu eta babesteko EAEko zentroentzako proiektuan parte hartu duten gizonezkoak ere kontabilizatzen dira atal honetan.

2. PRESTAKUNTZA	2007	2010	2015	2020	2025
2.1 Gizonduz ekimenaren esparruan aurrez aurreko edo online prestakuntza-ikastaro espezifiko batean parte hartu duten gizonen kopurua (10 ordu edo gehiagokoak edo aprobetxamendu-testa duten 8 ordukoak).	-	34	1.096	3.402	7.361
2.2 Gizonduz ekimenaren sentsibilizazio- eta prestakuntza-ikastaroak bizitza pertsonalerako baliagarritzat jotzen dituzten gizonen ehunekoa.	-	% 96,80	% 94,65	% 92	% 96,75
2.3 Gizonduz ekimenaren sentsibilizazio- eta prestakuntza-ikastaroak bizitza profesionalerako baliagarritzat jotzen dituzten gizonen ehunekoa.	-	% 86,60	% 89,75	% 91,6	% 92,75
2.4 Aurrez aurreko ikastaroetara joaten diren gizonen sentsibilizazio-mailaren batez besteko hazkundea (1-6 eskala).	-	-	-	-	4,5
3. KOLABORAZIOAK[9]	**2007**	**2010**	**2015**	**2020**	**2025**
3.1 Aurrez aurreko ikastaroak egin dituzten antolakundeen kopurua	*	51	197	328	480
3.2 Online ikastaroak egin dituzten antolakundeen kopurua	*	*	*	6	16
3.3 Gazteak Berdintasunean ikastaroak egin dituzten antolakundeen kopurua	*	*	4	25	132**
3.4 Gizonduz aholkularitza jaso duten antolakundeen kopurua	*	*	*	6	9

[9] Urtero lankidetzan aritzen den antolakundeen batura da. Antolakunde batzuk zenbait urtez aritzen dira, eta urtero kontabilizatzen dira.


4. GIZONEK ETXEKO LANETAN ETA ZAINTZAN DUTEN ERANTZUKIDETASUNA	2007	2010	2015	2020	2025
4.1 EAEn lana duten gizonek etxeko lanetarako eta zaintza-lanetarako egunean batez beste emandako denbora[10].	-	6 ordu	5,6 ordu	6,6 ordu	6,8 ordu
4.2 Gizonek etxeko lanetarako eta zaintza-lanetarako batez beste emandako denbora soziala[11].	1,2 ordu	1,4 ordu	1,6 ordu	1,4 ordu	1,7 ordu
4.3 EAEn gizonek egindako zaintza-lanen eta etxeko lanen ehunekoa.[12]	% 28,6	% 28,6	% 33,3	% 32,8	% 36,5
4.4. Gizonen ehunekoa, ahaideak zaintzeko eszedentzia baliatzen duten pertsona guztien artean.[13]	% 21,1	% 21,9	% 17,8	% 24,2	% 27,8
4.5 Gizonen ehunekoa, seme-alabak zaintzeko eszedentzia baliatzen duten pertsona guztien artean.[14]	% 5,2	% 4,7	% 6,7	% 28,45	% 15,7

* Adierazten du ez zegoela programarik, eta, beraz, ez dagoela zifrarik.

** 2024an, Gazteak Berdintasunean programan sartu da familia-laguntzarik gabeko adingabeei eta harrera-zentroei zuzendutako programa, eta horrek justifikatzen du entitateak handitzea.

[10] Iturria: Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteari buruzko inkesta. Eustat. 2023.
[11] Iturria: Denboraren erabileraren inkesta. Eustat. 2023.
[12] Iturria: Etxeko lanari buruzko kontu-satelitea. Eustat. 2023.
[13] Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren estatistika. 2024.
[14] Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren estatistika. 2024.


Azkenik, grafiko batzuk daude jarraian, informazioa jasotzen dutenak Gizonduz ekimenaren eta aholkularitza-zerbitzuaren sentsibilizazio- eta prestakuntza-ikastaroetan parte hartu duten gizonen eta entitateen kopuruaren bilakaerari buruz.




ERAKUNDE PARTE-HARTZAILEAK

Entitateen informazioari dagokionez, garrantzitsua da kontuan izatea entitate batek ikastaro bat baino gehiago antola ditzakeela; beraz, ez dago harreman zuzenik entitate kopuruaren eta egindako ekintzen osoko irismenaren artean.


Aurrez aurreko ikastaroetan parte hartzen duten erakundeak




Hezkuntza-erakundeak Gazteak Berdintasunean programan





Online ikastaroak egiten dituzten erakundeak



Aholkularitza jaso duten erakundeak







Gizonduz

Manuel Iradier, 36
01005 Vitoria-Gasteiz
945 01 67 00
emakunde.gizonduz@euskadi.eus

